

The SocialTech Times



Gatazkarik Gabeko Teknologia lortzearen alde




Jesuitak bultzatutako Fundazioa

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

001. Zb.

→ ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA

Kongoko ekialdeko drama humanitarioa



Talde armatuek kontrolatzen dituzte teknologia berrientzat ezinbestekoak diren «odolezko mineralen» ustiaketa, prozesamendua eta salmenta

Kongoko Errepublika Demokratikoa, batez ere herrialdearen ekialdea, munduko meatzaritza-gune garrantzitsuenetako bat da. Han dago koltanaren munduko erreserben % 80; mineral hori gabe, ezinezkoa izango zen teknologia berrien iraultza, bereziki teknologia mugikorrarena. Ez gara ari pantailaetako kristalaz edo aluminioaz, ez eta karkasetako plastikoz ere; ezkutuan dauden elementuez ari gara, gure mugikor, tableta eta ordenagailuen bihotzean ezkutatuta dauden elementuez.

Koltanaz gain (tantalioa erauzten da hartatik), aipagarriak dira, batez ere, funtsezko zereginak betetzen dituzten beste hiru mineral: urrea, wolframa eta eztainua. Wolframak eragiten du gure mugikorrekin bibrazioa egitea, tantalioak elektrizitatea metatzen du, eta eztainua zirkuituak

soldatzeko erabiltzen da. Azkenik, urreak kableak estaltzen ditu. Mineral horiek urriak eta garestiak dira, eta 'gatazka-mineralak' edo, are gordinago, 'odolezko mineralak' deitzen zaie. Haien erauzketa, prozesamendua eta salmenta talde armatuek kontrolatzen dute, eta infernuri okerrena bilakatu dute Kongo. Izan ere, bost milioi lagun baino gehiago hil dira 1998tik; 2013an bakarrik, milioi bat lagun lekualdatu dira; eta bortxaketa erabiltzen dute gerra-arma gisa; Enough Projecten arabera, urterik okerrenetan, urtean ehun mila emakume baino gehiago bortxatu dituzte.

Mineral horien ustiapenetik eta legareen aurkako trafikotik eskuratzen duten dirua arma gehiago erosteko erabiltzen dute tokiko talde armatuek. Bigarren Mundu Gerraz geroztik izan den gatazka odoltsuenari iraurarazte-

ko. Aberastasun natural ugari izan arren, Kongoko Errepublika Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizean azken tokian dago. Meategietako dinamikek azaltzen dute neurri handi batean paradoxa hau, eta milioika pertsonaren sufrimendua azaleratzen dute.

Gainera, mineralak erauzten aritzen diren pertsonen artizan-eran egiten dute lan, eta oso muturreko kondizioetan, gainera. Segurtasun-neurririk gabe, lan-ordutegi finkorik gabe eta soldata baxuekin lan egiten dute, eta gainera, haurrak ere erabiltzen dituzte lanerako. Eskalabotasunetik gertu dagoen lan-erregimen bat dela esan dezakegu, eta langileen (adingabeak barne) osasunari oso nabarmen eragiten diela eta ingurumenaren konpon-tzen zailak diren kalteak eragiten dituela.



la-ia esklabutza baldintzetan egiten dute meatzeko lana.

«Odolez zikindutako» mineral horiek iristen dira gure eskuetara gure mugikorrean ezkutatuta. Horretaz oso jakitun izan gabe ere, meatzeetan hainbeste jende esplotatzen jarraitzea eta gatazketan esku hartzen duten talde armatuei eustea finantzatzen laguntzen dugu.

Mugikorrak erabiltzeari uko egite-

ko asmorik eduki ez arren eta gailu elektronikoek komunikazioaren gizaratean ekartzen dizkiguten onurak alde batera utzi gabe, gizarate zibilak eskatzen du mineral horiek baldintza duinetan erauzte, giza eskubideak errespetatu, eta ez daitezela erabili gerrak finantzatzeko eta gatazkak betikotzeko.

ALBOAN BEREZIA



→ TEKNOLOGIAREN ETA INDARKERIAREN ARTEKO LOTURAK HAUSTEKO KANPAINA

Gatazkarik Gabeko Teknologia



Drama ezkututzen du koltanak

«Zeure mugikorrak ezkututzen duena» dokumentala egin du ALBOANek

«Gatazkarik gabeko teknologia» kanpaina ALBOAN GKEaren proposamen bat da, eta ikusarazi nahi du zer lotura dagoen Kongoko ekialdeko indarkeriaren eta gure tresna elektronikoen (bereziki mugikorren) artean. Hori lortzeko bidean, web-plataforma bat prestatu du, kanpainaren izena duena (www.gatazkarikgabekoteknologia.org). Gune horretan, «Zeure mugikorrak ezkututzen duena» izeneko 4 minutuko dokumental labor bat jarri du. Bideo horretan, modu arin eta atseginetan, indarkeriaren eta teknologien arteko lotura hausteko loturak aukera azaltzen dira. Dokumentalean Vanessa Sánchez kazetari eta ETBko aurkezle-

ak parte hartu du eskuzabaltasunez.

Arazo honi buruzko ezagutza arazotzeko egiten ari garen ahaleginaz gain, GKEak kanpainan parte hartzeko eta hura babesteko zenbait aukera zabaldu du, bai norbanakoentzat, bai erakundeentzat. Kongoko ekialdeko gatazka armatuak eta indarkeriak eragin dituen errefuxiatu eta iheslarietako proiektuak diruz lagundu daitezke, baita sinadurak bildu ere, gatazka elikatzen ari diren mineralen nazioarteko salerosketak arautzeko Europako direktiba bat landu dezaten sustatzeko.

Arau hau sortzeko prozesuan, ALBOAN Europako beste herrialdeko batzuetako erakundeekin ari da lane-

an. Horrez gain, kanpainak kontzientziatu egin nahi gaitu bereziki mugikorre eta, oro har, teknologiari ematen diegun erabilera, eta haiek arduraz erabiltzea eta kontsumitzea. Horretarako, ALBOANek trebakuntza-ikastaroak eta -tailerrak sustatzen ditu interesa duten guztientzat, baita ikasgelan erabil daitezkeen eta boluntario-taldeek erabil ditzaketen unitate didaktikoak ere.

Halaber, «Kongoren aldeko mugikorrak» izenarekin, mugikorrak biltzeko eta berrerabiltzeko kanpaina jarri du martxan berriro. Kanpaina horrek ingurumena zaintzea sustatu nahi du, eta jasotako mugikorrekin lortutako diru-sarrerak Kongoko ekialdean desplazatutako pertsonen bideratutako proiektuak babesteko erabiliko dira.

→ **SAREAN**
Informazio hori eta dokumentazioa kanpainaren webgunean dituzue:
www.gatazkarikgabekoteknologia.org



→ BIRZIKLATZEA ETA KONTSUMO ARDURATSUA

Kongoren aldeko mugikorrak

ALBOANek telefonoak biltzeko guneen sarea eratu du Euskaltelen laguntzarekin osagaiak errekupeatu ahal izateko



Telefono mugikorrak birziklatzeari eta berrerabiltzeari esker, mineral gutxiago erabili behar dira Kongoko ekialdean. Telefono mugikorren osagaien % 90 da birziklagarria. ALBOANek, Euskadi eta Nafarroako jesuiten GKEak, Euskaltelen lankide-tzarekin, mugikorrak birziklatzeko kanpaina abiarazi du berriro «Kongoren aldeko mugikorrak» izenpean. Ekintza horren helburua da telefono mugikorrak arduraz erabiltzeaz sentibilizatzeko, haiek birziklatzea sustatzea, ingurumena kontserbatzen laguntzea eta mineral gutxiago erabiltzea.

Gainera, birziklapen horrek eragin-dako etekin ekonomikoak, bestetik, Kongoko ekialdeko gatazka armatuak eragin dituen errefuxiatuei eta iheslarietako proiektuak babesteko bideratuko dira. «Kongoren aldeko mugikorrak» mugikor zaharra duen eta eman nahi duen edonori zuzenduta dago. Proposamen honetan parte hartu

nahi dutenek jada erabiltzen ez dituzten mugikorrak utzi ditzakete ALBOANen egoitzetan eta Euskaltelen dendetan dauden edukiontzietan, edo edukiontzi bat eska dezakete beren bilketa-puntuak ezartzeko. Euskaltel funtsezko aliatu estrategikoa izan da, bere lan-zentroak eta saltokiak eskaini baitizkigu, bilketa-puntu izan daitezkeen. Hartara, Euskaltelen dendetara joaten direnek dagoneko erabiltzen ez dituzten mugikorrak utzi ditzakete puntu horietako edukiontzietan. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroa osoan daude kokatuta bilketa-puntu horiek. Telefono mugikorrak biltzeko, birziklatzeko eta berreskuratze logistika Revitak bideratzen du. Enpresa hori espezializatuta dago mugikor zaharren kudeaketan, berreskuratzen eta mugikorrak berriro martxan jartzen.

Informazio gehiago eskuratzeko:
www.alboan.org/kongorenaldekommugikorrak
www.gatazkarikgabekoteknologia.org

AURKI EZAZU ZEURE MUGIKORRAK KONGOKO INDARKERIAREKIN DUEN LOTURA

ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA

ESTREINALDI-APARTA
WWW.GATAZKARIKGABEKOTEKNOLOGIA.ORG

QR code



Jesuiten bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org



www.gatazkarikgabekoteknologia.org

LORTZEAGATIK

→ **ALBOANEN ETA ERREFUXIATUENTZAKO JESUITEN ZERBITZUAREN PROIEKTUAK****ALBOAN BEREZIA**

Kongoko iheslariei eta errefuxiatuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea

Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdea krisi humanitario, sozial, politiko eta ekonomiko batean murgilduta dago. Urtero-urtero, larriagotu egiten da, eta tokiko nahiz eskualdeko talde militar eta matxino armatu ugari hartzen dute esku guneko baliabide naturalak eta mineralak kontrolatzeko.

Ziurgabetasun- eta ezegonkortasun-testuinguru horretan, Kongoko ekialdeko Iparraldeko Kivu probintziako herriek indarkeriatik ihesi ibili besterik ez dute egiten. Kalkuluen arabera, 2013ko irailera 2 milioi lagunek baino gehiagok utzi zituzten beren etxeak. Haietako askok laguntza humanitariorik ez duten bat-bateko asentamenduetan bizirautean dute, ez baitute Nazio Batuen agentzien aitorpenik, ez babes ofizialik.

Ihesi joan diren pertsona horiek egoera kaskarrean eta oso zailen daude: ez dute nahikoa elikagai, ez dute diru-iturririk, ez dute hezkuntzarako sarbiderik, hainbat lekualdazterengatik eta jasandako indarkeriagatik trauma psikologikoak dituzte, eta zailtasunak dituzte segurtasun-baldintzetan bizitzeko, besteak beste.

ALBOANek, Euskadi eta Nafarroa-



Jesuita a Refugiados zerbitzuz ia 156.000 pertsonari laguntzen die.

ko jesuiten GKEak, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari (JRS) laguntzen dio Goman, Iparraldeko Kivuko hiriburuan, esku hartzen, eta premia horiek guztiak asebetetzen saiatzen da. Horretarako, zazpi kanpamendutan banatutako 156.000 laguni ematen die arreta, gutxi gorabehera.

Leku horietan, JRSk hainbat zerbitzu ematen dizkie ihes egin duten herritarrei; besteak beste, elikagaiak eta larrialdiko materialak, nola mantak eta txabolak eraikitzeko olanak. Kanpamenduetako hezkuntzaz ere arduratzen da; horretarako, bigarren hezkuntzako eskolak hornitzen ditu ikasle iheslariak hartzeko, sentsibili-



Laguntza integrala.

zazio-jarduerak egiten ditu gurasoen artean seme-alabak eskolara eraman ditzaten, eta irakasleak trebatzen ditu. Beste zerbitzu aipagarri bat da indarkeriaren eta lekualdaketaren ondoriozko traumak jasan dituztenei ematen dien laguntza psikosoziala. Bereziki garrantzitsua da emakume

→ **NOLA LAGUNDU**

Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdeko gatazkagatik ihesi joan direnei arreta ematen lagundu nahi dutenentzat, ALBOANek zenbat bide jarri ditu aukeran:

● **902 999 2221 telefono-zenbakira deituta.**

● **Kanpainaren webgunearen bidez donazioak online eginda:** www.gatazkarikgabekoteknologia.org edo ALBOANen webgunean: www.alboan.org

● **Dirua sar dezakezu ALBOANen kontu-korrenteetan,** diru-sarreraren kontzeptuan «Kongo» hitza adieraziz.

BBVA: ES52 0182 1290 35 0010853001

Laboral Kutxa: ES39 3035 0083 27

0830064469

La Caixa: ES76 2100 0732 28 0200485457

Kutxabank: ES06 2095 0000 70 9101227989



Jasotako ekarpenak oso balioetsuak izango dira Kongoko ekialdeko desplazatuentzat.

Jasotako laguntzarekin egin daitekeenaren adibide batzuk:

● **10 € baino gutxiagorekin,** eskolako kit bat erosten lagundu daiteke. Honako hau hartzen du barne kitak: telazko motxila bat, zeina JRSk ere laguntzen dien emakume iheslariak egin baita, eta han sartzen diren koadernoak, boligrafoak, arkatza, borragoma...

● **30 € baino gutxiagorekin,** oinarritzko elikagaiak (olioa, arroza, azukrea, esnea) osatutako otordu bat lor daiteke, familia batek behar dituen kaloriak hartzea bermatzeko.

● **600 €-ekin,** gutxi gorabehera, eskola bati behar duen material guztia eman dakioke (irakasleentzako materiala, garbitasuneko kitak eta jolas-materialak).

bortxatuei ematen zaien arreta psikologikoa. Azkenik, JRSk alfabetatu egiten ditu, lanbideak erakusten dizkie eta lan-tresnak banatzen dizkie kan-

pamenduetako herritarrei, haien lanpostu bat aurkitzen laguntzeko, eta denboran iraungo duen diru-iturri bat bermatzeko.

→ **TEKNOLOGIEN ERABILERA ARDURATSUARI BURUZKO HAUSNARKETA GELETARA ETA KALERA ERAMATEA**

Garapenerako hezkuntza

«Gatazkarik gabeko teknologia» kanpainak garapenerako hezkuntzaren proposamen bat hartzen du barne, eta haren asmoa da kanpainaren inguruan ahalik eta pertsona eta erakunde gehien mobilizatzea. Helburua da herriak eskaera bat egitea, ordezkari politikoak eta enpresak bultzatzen dituzten erantzukizuna onartzera, eta Kongon bizi duten drama humanitarioa gelditzen lagunduko duten neurriak hartzea.


Gailu elektroniko baten «erauzketa» - fabrikazioa - merkaturatzea - birziklatzea - ziklora hurbilduz, kanpainak gogoeta kritiko bat planteatzen du, non gure garapen-eredua, bizimoduak eta kontsumo-ereduak lotzen baititu mineralen erauzketarekin eta erauzketa horren ondorioak bizi eta jasaten dituztenekin, eta, aldi berean, nazioarteko harreman ekonomikoaren sistemak zalantzan jartzen baititu. Horretarako, teknologietan (zehazki

mugikorretan) jarriko dute arreta, herritarrengana iristeko abiapuntuak elementu gisa.

ALBOANen, ekintzara eta herritarren mobilizaziora bideratutako eta hainbat hartzaile-motari egokitutako heziketa-proposamen batzuk prestatu dira: sentsibilizazio-eragileak trebatzeko saioak eta tailerrak, herritarren mobilizatzeko proposamenak (boluntario-taldeei eta erakundeei zuzenduta edo inguruko herrialdeak), geletan lantzeko unitate didaktikoak eta sinadurak jasotzeko ekintza-proposamenak, mugikorraren birziklatzea eta diru-bilketa gatazkaren ondorioz desplazatutako pertsonen laguntzeko proiektuetarako.

Hezkuntza-proposamen honi buruzko informazio guztia kanpainaren webgunean duzue:

www.gatazkarikgabekoteknologia.org.



«Odolezko mineralen» taula.



Hezkuntza programak Euskadiko eskoletara ere iritsi dira.

ALBOAN BEREZIA



Jesuitek bultzatutako Fundazioa

→ TEKNOLOGIAREN ETA INDARKERIAREN ARTEKO LOTURAK HAUSTEKO KANPAINA



Mugikor baten benetako prezioa

Kostu ekonomikoaz gain, mugikorrekin gizarte- eta ingurumen-kostuak ere badituzte; baina horiek ez dute eraginik prezioan

Mugikor arrunt batek 500-1.000 osagai ditu. Osagai horiek erazteak eta prozesatzek 75 kg hondakin sortzen ditu telefonoko, gutxi gorabehera. Elementu horietako batzuk baliabide garestiak eta urriak dira, eta lotura dute gizarte- eta ingurumen-gehiegikeriekin.

Horren adibide da tantalioa lortzea –koltan izeneko mineraletik erazten

da—. Mineral horren munduko erreserben % 80 Kongoko ekialdean dago, eta hura ustiatzeak eragiten du giza eskubideak urratzea, ingurumena suntsitzea eta eskualde hartan dauden gatazkak finantzatzea.

Europar, dauden mugikorraren % 40 inguru berritzen da urtero; Espainian bakarrik, 18 milioi mugikor, gutxi gorabehera. Aparatu baten balio-bizi-

tza 10 urte ingurukoa bada ere (bateria kenduta), hura urte eta erdi eta bi urte eta erdi bitarte erabiltzen da, batez beste. Gehiegitan berritze horrek zentzibait arrazoi ditu: publizitatearen prezioa, modak, aldaketa estetikoak edo etengabe funtzionalitate berriak gehitzea.

Gainera, konponketen eta osagai kaltetuak erostearen prezio altuak

edo telefonoak funtzionalitate berriei birprogramatzeko ezintasunak are gehiago sustatzen dute aparatua aldatzea. Mugikorrak arduraz erabiltzeak eta, haien balio-bizitza luzatzek lagundu dezake Kongon mineralak erazteak duen eragina murrizten.

Baina, mugikorrak ekoiztearen ingurumen- eta gizarte kostuaz gain, eta aparatuek gehiegitan berritzeaz gain, badago beste arazo bat ere: hondakin elektronikoen bolumena eta toxikotasuna. Arazoaren tamainaz jabetu gaite-

zen, Europako biztanle bakoitzak 14 kg hondakin elektronikoko sortzen ditu urtean, batez beste. Basileako itunak debekatu egiten duen arren, hondakin horietako asko Afrikako eta Asiako herrialdeetara bidaltzen dira bigarren eskuko merkaturako produktuak balira bezala, eta zabor teknologikoaren zabor-tegi handietan bukatzen dute. Zabor-tegi horiek ingurumena suntsitzen dute, eta ondorio larriak dituzte zabor-tegi horiek dauden herrietan, haien bizi- eta osasun-baliabideak suntsitzen baitituzte.

→ MINERAL SALEROSKETARAKO NAZIOARTEKO ARAUDIA

Gizarte zibilak Europako direktiba bat nahi du mineralen salerosketak gatazkak ez dituela areagotzen ziurtatzeko

Brusela arautegi bat prestatzen ari da industriak uko egin diezaien «odolezko mineralak», baina boluntarioa izango da

Nazioarteko sareetan dauden gizarte zibileko erakundeak gatazkan dauden guretatoko mineralen salerosketa arautzea eskatzen ari dira. Arau hauekin lortu nahi da teknologia-fabrikatzaileek beren hornikuntza-kate osoaren ardura hartzea eta bermatzea beren produktuek ez dutela gatazka armatuak finantzatzen dituzten mineralik. 2010ean, Estatu Batuek arau bat onartu zuten: Wall Street berritzeko eta kontsumitzaileak babesteko Dodd-Frank legea.

Lege horren arabera, lau mineral daukete gatazkan (tantalioa, tungstenoa edo wolframa, eztainua eta urrea), eta gune geografiko bat (Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdea edo inguruko herrialdeak). Lege horrekin, enpresa estatubatuarrek miaketak egin behar zituzten beren hornikuntza-katean, eta jakinarazi behar zuten ea erabiltzen zuten Kongoko Errepublika Demokratikoko (KED) edo ondoko herrialdeetako mineralik. Dodd-Frank legeak eragin

positiboa izan du. Izan ere, gatazkaren eta mineral-ustiatzearen artean dagoen loturari buruzko kontzientziazio-maila handitu du. Horrez gain, gatazka-mineralen meatzeak ustiatzea legez kanpoko talde armatuentzat eta armadarentzat hain errentagarria ez izatea lortu du, eta, batez ere, aurrekari positiboa izan da frogatzeko gobernuak badutela gaitasuna hornikuntza-kateak garbitzeko eta enpresen borondatezko ekimenez harago joateko.

Europar, direktiba bat onartzeko bidean ari dira lanean. Martxoan, Europako Batzordeak ekimen bat planteatu zuen Europako industriak ez dezan erabili gatazka armatuak sustatzen dituen salerosketako mineralik. Ipar

Amerikako legeak ez bezala, direktiba honek edozein minerali eragingo lioke, munduko edozein lekutako mineralak, baldin eta haien salerosketak gatazkak sustatzen baditu; baina fabrikatzaileentzat ez litzateke izango nahitaez betetzekoa, borondatezkoa baizik, eta horrek arauaren eragina murrizten du.

Egoera horren aurrean, Europako gizarte zibileko erakundeek eskatu dute zuzendu dadila direktiba hori, enpresentzat loteslea izan dadin. Beren ahoz entzuna izan dadin, sinadurak biltzeko kanpainak egingo dituzte erakunde horiek datozen hila-beteetan, beren eskaerak ordezkaritza politikoei helarazteko. Pertsona askoren bizitza da go jokoan.

Gune honetara sartuta parte har dezakezu:
«www.gatazkarikgabekoteknologia.org»



ALBOAN -EN KANPAINA BAT

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

LORTZEAGATIK

LAGUNTZAILEAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Política SocialGARAPENERAKO
LANIKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO